

BEHIN-BEHINEKO ERABAKI-PROPOSAMENA, Euskal Autonomia Erkidegoan sektore estrategikoetako, pertsonen zaintzako eta despopulazio-arriskuan dauden gunetako kualifikazio profesionalarekin lotutako biztanleria aktiboaren kualifikazio eta birkualifikazioko prestakuntzarako reskilling eta upskilling ekintzak garatzeko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

PROPUESTA DE RESOLUCION PROVISIONAL de la convocatoria de subvenciones para financiar el desarrollo de acciones de reskilling y upskilling, para la formación de cualificación y recualificación de la población activa, vinculada a cualificaciones profesionales en sectores estratégicos, cuidado de las personas y zonas en riesgo de despoblación, en el ámbito del País Vasco, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea – Next Generation EU.

Aztertu dira reskilling eta upskilling ekintzen garapena finantzatzeko diru-laguntzen deialdiaren babesean aurkeztutako eskabideak, sektore estrategikoetako lanbide-kualifikazioei, pertsonen zaintzari eta despopulazio-arriskuan dauden eremuei lotutako biztanleria aktiboaren kualifikazioko eta birkualifikazioko prestakuntzarako, eta honako hauetan oinarrituta:

Vistas las solicitudes presentadas al amparo de la convocatoria de subvenciones para financiar el desarrollo de acciones de reskilling y upskilling, para la formación de cualificación y recualificación de la población activa, vinculada a cualificaciones profesionales en sectores estratégicos, cuidado de las personas y zonas en riesgo de despoblación, y en base a los siguientes:

GERTAKARIAK

HECHOS

Lehena.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2022ko apirilaren 5eko bileran hartutako erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan sektore estrategikoetako, pertsonen zaintzako eta despopulazio-arriskuan dauden gunetako kualifikazio profesionalarekin lotutako biztanleria aktiboaren kualifikazio eta birkualifikazioko prestakuntzarako reskilling eta upskilling ekintzak garatzeko dirulaguntzen deialdia onartu du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (2022/04/13ko EHAA).

Primero.- El Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, mediante Acuerdo adoptado en su sesión de 5 de abril de 2022, ha aprobado la convocatoria de subvenciones para el desarrollo de acciones de reskilling y upskilling, para la formación de cualificación y recualificación de la población activa, vinculada a cualificaciones profesionales en sectores estratégicos, cuidado de las personas y zonas en riesgo de despoblación, en el ámbito del País Vasco, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea – Next GenerationEU (BOPV de 13/04/2022).

Bigarrena.- Deialdirako eskabideak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 13an amaitu zen.

Segundo.- El plazo de presentación de solicitudes de la Convocatoria finalizó el 13 de mayo de 2022.

Hirugarrena.- Osatu gabe zeuden eta/edo deialdian eskatutako nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ez zuten eskabideak zuzentzeko eskaera egin da.

Tercero.- Se ha procedido a requerir la subsanación de aquellas solicitudes que se encontraban incompletas y/o no estaban acompañadas de la documentación preceptiva exigida en la convocatoria.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Deialdiaren 12.3 artikuluan aurreikusitako Ebaluazio-Batzordea da behin-behineko ebazpen-proposamen hau emateko organo eskuduna, 12.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- Ebaluazio-batzordeak deialdiko 14. artikuluan aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera baloratu ditu aurkeztutako eskabideak, eta laguntza zehazteko 13. artikuluan araututako sistemari jarraitu dio.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin-behinean onartutako prestakuntza-planetan jasotako prestakuntza-ekintzak finantzatzeko diru-laguntzak I. eranskinen zerrendatzen diren erakundeei ematea proposatzea.

Bigarrena.- Bigarrena.- II. eranskinen adierazten diren eskabideak onartzea eta ukatzea proposatzea.

Diruz laguntzea proposatzen direnak eta lerro bakoitzerako baliabideak agortzeagatik eta/edo eskatzaile bakoitzeko gehieneko mugara iristeagatik ukatzea proposatzen direnak jasotzen dira, deialdiaren 18.4 artikulua arabera.

Hirugarrena.- Deialdi honetan aurreikusitako baldintzak ez betetzeagatik, ez da eskabiderik ezestea proposatzen.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- La Comisión Evaluadora prevista en el artículo 12.3 de la convocatoria, es el órgano competente para dictar la presente propuesta provisional de resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12.4.

Segundo.- Las solicitudes presentadas han sido valoradas por la comisión evaluadora de acuerdo con los criterios de valoración previstos en el artículo 14 de la convocatoria y se ha atendido al sistema de determinación de la ayuda regulado en el artículo 13.

Por todo ello,

ACUERDA

Primero.- Proponer la concesión a las entidades que se relacionan en el anexo I, de las subvenciones destinadas a la financiación de acciones formativas contenidas en los planes de formación provisionalmente aprobados.

Segundo.- Proponer la aprobación y la denegación de las solicitudes que se indican en el anexo II.

Se contemplan las que se propone subvencionar y las que se propone denegar por agotamiento de los recursos destinados a cada una de las líneas y/o alcanzar el límite máximo por solicitante según artículo 18.4 de la convocatoria.

Tercero.- No se propone la desestimación de ninguna solicitud por incumplimiento de los requisitos previstos en la presente convocatoria.

Laugarrena.- Ebazpen hau JAKINARAZTEA Lanbideren webgunean argitaratuz (www.lanbide.euskadi.eus), eta prestakuntza-erakunde interesdunei jakinaraztea 5 egun balioduneko epea izango dutela, behin-behineko ebazpen hau Lanbideren webgunean argitaratzen denetik aurrera, alegazioak egin ditzaten edo eskabideari uko egin diezaioten,, LanF aplikazio informatikoaren bidez.

Cuarto.- NOTIFICAR la presente resolución mediante su publicación en la página web de Lanbide (www.lanbide.euskadi.eus), haciendo saber a las entidades de formación interesadas que dispondrán de un plazo de 5 días hábiles, contados a partir de la publicación de esta Resolución Provisional en la página web de Lanbide, para que a través de la aplicación informática LanF, puedan formular alegaciones o desistir de su solicitud.

Behin-behineko proposamen honek ez die inolako eskubiderik ematen onuradun gisa proposatutako erakundeei, Administrazioaren aurrean.

Esta propuesta provisional no crea derecho alguno a favor de las entidades propuestas como beneficiarias, frente a la Administración.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 17a / Vitoria-Gasteiz, 17 de junio de 2022

Sin/Fdo.: Juan Carlos Ibarrola Sáenz de Ugarte

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria
Director de Formación Profesional para el Empleo de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo